

BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Gure jarduerari begira, oso garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroekin **harreman hurbilak** egitea. Eskainiko duguna saltzearen ekintza baino haratagoko ekintza irudikatzen dugu. Hau da, sexu hezkuntza eta kolektibo batentzat baztertuta dagoen sexu eskubidea landu nahi dugu eta horretarako konfidantza edo harreman moduko bat sortzea garrantzitsua iruditzen zaigu, ahal den heinean.



Horregatik, lokal fisikoak bezeroarekin aurrez-aurre egoteko eskeintzen digu. Modu honetan, gertutasuna eta zerbitzu zuzenagoa eukitzeko. Honek, bezeroarekiko erlazio naturalago bat sorrarazten du, zerbitzua erosoagoa izanik.

Esate baterako, hauek edozein arazo eukitzekotan gugana jo daitezke bai informazioa jaso dezaten edota jostailu batekin arazore bat eukitzekoan (ez doa ondo, arazoak dituzte erabiltzerako orduan,...). Gure helburua pertsona horrekin giro eroso bat sorraraztea da. Honek edozein behar eukitzeko momentuan, lasaitasunez deitzeko.